


LIBURUAREN ATALAK



(Irudia: alleryolott.blogspot.com/2012/05/las-partes-de-un-libros.html)

1. Azala: Azala liburua babesteko erabiltzen den estalki bat da. Bertan liburuaren izena eta portada inprimatzen dira, koloreetan normalean.
2. Azal-hegala: Azal-hegala azalaren hegaleko luzapen bat da, izenak berak dioen moduan. Bertan egilearen datuak, argazkiak, bestelako publikazioak... inprimatzen dira.
3. Estalkia: Liburuaren tapa da, kanpo azala ere deitua eta bertan inprimatzen dira liburuaren izena, egilearen izena eta argitaratu duenaren editorialaren izena.
4. Bizkarra: Liburuaren azal eta kontra azala lotzen dituen elementu sendoa da, eta bertan doaz inprimaturik liburuaren eta egilearen izenak.
5. Babes-orria: Liburuaren hasieran zein bukaeran agertzen diren orri txuriak dira eta barneko orrien babesak funtzio duten orriak dira.
6. Aurre-portada: Babes-orriaren ondoren orrialdea da, non, soilik liburuaren izena idazten den.
7. Portada: Orrialde honetan liburuaren izenaren, egilearen eta publikatutako editorialaren datu guztiak datoz osotasunean, hala nola, argitaratze data, argitaratze lekua...
8. Kontraportada: Liburuaren amaieran kokatzen den orrialdea da. Bertan liburuaren seriea joan daiteke baina hutsik ere joan daiteke.
9. Liburuaren gorputza: Liburu osatzen duten orrialde multzoa da.
10. Amaiera: Amaiera liburuaren azken orrialde bakoitian joan ohi da, bertan imprimazio lekua, data eta inprentaren izena doazelarik inprimaturik.

(iturgia: https://benatiraolaaranzabe.wixsite.com/liburu/liburuaren-atalak)